
MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2021eko apirila - 215 zkia.

KALAPUTXI

LANGILEAREN EGUNA
maiatzak 1

Maria Begoña Irusta Elu

LANAREN ILDOTIK ZAILDUTAKO BIZITZA



Udaberria: etorri da kukua, joan da negua
Mutriku Arraun Taldea denboraldi berriari ekiteko prest
Haginkadak, zaztadak eta erredurak
Ianire Usandizaga Azkarate, irakasle Oklahoman
2020an kaleak hutsik, 2021ean kaleak beteta

URTE 20 AUSKAN!
Mutrikuko Gaztetxia

EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre









okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste

asteazkenetan eta ostiraletan erosketak etxera eramateko aukera

San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11

MUTRIKU
943 603236

MARKINA-XEMEIN
94 6169759



IZARRA
Iturgintza
berogintza
gasa
aire egokitua

energia berriztagarriak
eguzki energia
biomasa
geotermia

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA 660 485 802

laister sukaldeko altzariekin hasiko gara

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 60 35 45
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Maribel Urkiri Arruti

EMAKUMEAREN EGUNA

Jun dan hillian izan gendun "emakumearen eguna" ospakizuna, baina, nahi neuke hona ekarri emakumiak zenbat borrokatu bihar izan zeuen euren izatia aurrera eramateko.

"Generación del 27" deitxutakuak, ez ziran gizonezkuak bakarrik izan, han izan ziran emakume jakintsuak ere, idazliak, arte lanetan bikaiñak. 1931n Corteetan lehenengo emakumia parte hartzen izan zanak, Clara Campoamor, esan zoan: "*Konfiantza dudalako eta sakon aztertu emakumearen ariman, pasioz defendatu dut emakumearen eskubidea botoa emateko*". 1888xan Madriden jaixua, esaten zoan sasoi hartan emakumiak etxeko lanetarako, umiak zaintzeko, etxeko lanak egitxeko… bakarrik balixo ei zeuen. Gerra ondoren Suizan eta Argentinan bizi izan zan. Lan eta lorpen ugariren ondoren Donostiara etorri zan bere lanagatxik eta zoriontsu bizi izan ei zan, hain zoriontsu, ze, eskatu zoan bere gorputza Donostian hilobiratua izan zedin, eta Polloe hilerrixan dago. Horretzaz gain, Donostiak eskaiñi dio eskultura bat bere izenarekin eta Kontxako pasiabidean dago. Adiskidetzat izan zitxuan bi donostiar ere, Josebe Martinez eta Benita Asas Manterola, honek sortu zoan "El Pensamiento Femenino" aldizkarixa, eta salatzen zoan emakumiaren ezereza bizitzako arlo gehixenetan. Idatzitxa utzi zoan, orduan ere: "*Adiskideei mesedea, etsaiei legea*", 33 urterekin abogatutza karrera egin zoan, hain zuzen ere emakumiak laguntza izan zezaten. Asko idatzi zoan, eta beti emakumiak eta bere feminismoa sutsuki gogoan zoala. Idazle gizonezko batek hola zioen: "*Clara Campoamor ospetsua, emakume abokatu hori, diputatua, idazlea eta, hala ere, oso emakumea, txikia, sagar itxurakoa eta begi urdurizkoa, baina kemen handikoa*".

Baita ere ezin ditxugu ahaztu emakume euskaldunak, euskal poesian idazlien artian lehen andria izan zan Maria Estibaliz de Sasiola, Deban jaixua 1550ian eta Isabel Lobiano mutrikuarra.

"*Emakumeen istorioak denbora luzean isilarazita egon dira, Historiaren idazle eta transmisoreak gizonak izan baitira luzaroan, emakumearen esparrua etxeko pribatutasunera mugatua izan den heinean*". Cristina Mendigurenen "Euskal Herriko unibertsitatea" lanetik aterea.





www.lurraldebus.eus 900 300 340 (08:00-20:00)

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

neguko ordutegia irailaren 1etik

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30 (ig)	21:00 (lr.)	ig igande eta jai egunetan lr. larunbatetan
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	22:00	
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15 (lr.)	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15 (lr.)
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	---	7:45	orduro	19:45	20:45 (lr.)	21:45 (lr.)
Eibar	---	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00
Mendaro	---	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35
Mutriku	---	8:55	orduro	20:55	21:55 (lr.)	22:55 (lr.)

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10 (lr.)
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	9:45 (lr.)	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	8:40 (lr.)	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxi.eus

Marisa, gure lagunari:



Zenbat urte generaman elkar ikusi gabe eta hala eta guztiz ere,
beti maite izan zaitut.

Gaztetan zenbat egun eder pasa genituen elkarrekin.
Hori betirako geratzen da.

Bizitzak urrundu gintuen baina gure elkarrekiko maitasuna ez da sekula itzali.
Elkarrekin ikasi genuen. Zenbat egun eder!

Zure alaitasuna eta lagunarekiko zenuen maitasuna ez da erraz ahazten.
Maitekorra izan zara beti.

Ez zaitut sekula ahaztuko, nire bihotzean egongo zarelako beti.

Bere betiko lagunak
2021-03-25

Pedro Alkorta Txurruka
Doistu



Adiskide bat bazen
Orotan bihotz-bera,
Poesiaren hegoek
Sentimentuzko bertsoek
Antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari
Bakardadez josia,
Hitzen lihoa iruten
Bere barnean irauten
Oinazez ikasia...
Ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik
Libratu huen kanta,
Lotura guztietatik
Gorputzaren mugetatik
Aske senditu nahirik.

Azken hatsa huela
Bertsorik sakonena,
Inoiz esan ezin diren
Estalitako egien
Oihurik bortitzena...
Bortitzena.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana.

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta kalaputxi2001@gmail.com
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz.

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:
Mutrikuko Udala

UDABERRIA
etorri da kukua, joan da negua

Gure aiton-amonengandik jasotako atsotitzek gure herriko folklorea, etnologia, gizartea, filosofia, morala, ohiturak eta animaliei buruzko usteak, zein jokamoldeak eta tradizioak erakusten dizkigute. Gaur hartu dugun gaiari —udaberria— buruzkoak berrikusi ditugu, eta, eguratsari dagozkienak ezik, euskararen herrian udaberriaren sinbolo den kukuari buruz arituko gara; baita "zozomikote" egunez ere.

Santa-eske egun eta neguko beste ospakizun batzuetan lurra kolpatzen da bere lozorrotik esnarazi eta udaberriaren hatsak sumatzen hasteko, lurraren fruituak beharrezkoak baitira bizitzarako. Eragina lurrean ez ezik gizakiaren portaeran ere nabaritzen da. Hori adierazten dute ondoko bi atsotitzek: "*Udaberrin lur guztia erremin*", "*Udaberrik odola aldatzen dik*".

Baina udaberri guztiak ez dira berdinak, ez eta osatzen duten hilabeteak ere. Gotzon Garate elgoibartarrak milaka atsotitz bilduak ditu Euskal Herriko baserri eta kaleetan, eta udaberriari dagozkionak berrikusi ditugu, eta hona adibide batzuk: "*Martxo gezurti, gaur euri, bihar eguzki*", "*Eguzkixe eta eurixe Martiko egueldixe*" (martxokoa eguraldia aldakorra dela adieraziz), edo "*Martxoko lorea, bape ez balego hobea; apirileko lorea, urregorrie baino hobea; maiatzeko lorea, bapeza baino hobea*" (eguraldiak zuhaitzetan izan dezakeen eragina kontuan). "*Apirila biribila, urdea urdandeian otzak illa; ez, ez dago illa, isatsa badabilla*", "*Apiril ona ikusi nai duenak, eun urte bizi beharko du*" (apirilean gorabehera handiak izaten direla adieraziz). "*Ganbarako bazterrean maindire bat abotz, maiatzaren ondar arte gorde zak*" (maiatzaren azken egunak gogorrak izaten ohi direla ohartzeko).

Hala ere, badugu atsotitz bat "*Martxoaren ogeta bostien Erromako zubian (ostadarra) pasatzen da kukua*", eta txori hau hartu dugu udaberriaren sinbolotzat euskararen herrian. Hona zer dion kontu honetaz Patxi Saez Beloki beasaindar soziolinguistak:

<<Gizakiaren izaeraren muinean dagoen ezaugarria da sinboloak sortzea. Bizi duen mundua ulertzeko, gizakiak bere zentzumenetatik jasotako inpresioak hezurmamitu egiten ditu, espresio bihurtzen ditu, eta, horretarako, zentzu eta esanahi horiek osatzen dute kultura eta, azken batean, errealitatearen azalpen sinbolikoak dira, inolako oinarri enpiriko edo zientifikorik gabeak.

Antzinako euskaldunentzat kukuaren etorrerak lur-soroak neguko lozorrotik esnatu zirela adierazten zuen, negu gorria galdu zutela eta uda etorri zela. Izan ere, antzinako euskaldunen egutegiak bi urtaro besterik ez zituen, uda eta negua. Afrikako hegoaldetik guregana etortzeko 9.000 kilometro gauez eta bakarrik egiten duen txoria udaberriaren iragarle dugu, etengabe sorberritzen den bizitzaren sinbolo.

Gure aurrekoen ustez, Ama Birjina Martxoko egunetik (martxoak 25etik) hasi eta 15 eguneko tartean kukuak ez jotzea, gaitz handi eta beldurgarria zen, natura zoratzearen seinale, ez baitzetorren udaberririk. Baina munduaren akaberatik ihes egiteko modurik bazegoen; herriaren usteak zionez, Andra Mari Martxoko egunetik hasi eta ondorengo 15 egunetan ageri ez bazen, bederatzi idi-pareri gurdia lotu eta bere bila joan behar omen zen Erromako zubira.

Nekazarientzat udaberria da urtean lanik handiena izan ohi den sasoia, soroak prestatu eta ereitekoa. Nekazariak izenetik ezagun du izana: nekatzaileak neka-neka eginda ateratzen du bizimodua. Kukua, berriz, kolpe zorririk jo gabe bizi da. Ez egitearren, habiarik ere ez du egiten. Nekazariak seme-alabak aurrera ateratzeko lana beltz egin behar duen bitartean, kukuak ardurarik txikiena ere ez du hartzen bere kumeak zaintzeko: ezkutuka, beste txori batzuen habietan arraultza bana errun, eta kukukumeak hazteko ardura auzokoari kateatzen dio. Kukuaren ardura bakarra eguzkitan gozo-gozo jarri eta kuku han eta kuku hemen kantatzea izaten da. Bi hankakoen munduan horrelako bizimodua aberatsei bakarrik ezagutzen zaie. Eta, hortik edo, horrela dio herriaren usteak: udaberriko lehen kukuak sakela "bero" duzula harrapatzen bazaitu, ondo joko dizu eta urte osoan ez duzu estutasunik izango. Beraz, kukua atarramendu edo zori hobearen sinbolo ere badugu euskaldunen artean.>>

Azken uste horren aurka idatzi zuen Bustintza´tar Ebaista "Kirikiñok". Bere "Abarrak" liburuan ipuin bat kontatzen du, non etxeko gizonak azken denboran jasotako diruak eskatzen dio emazteari, poltsikoan sartu, eta basora kukuaren joa entzutera joateko. Harantz eta honantz luzaroan ibili ondoren kukua entzun gabe, nekaturik, sasiarte baten ondoan jarri eta bertatik ez dela mugituko erabakitzen du. Halako baten gizon handi bat ateratzen zaio sasi artetik eta, labana handi bat eskuetan, zeukan guztiak emateko agintzen dio gizonari, zerbait okerragoa nahi ez

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



bazuen. Gainean zuen diru guztia eman, eta hasi da goibel etxerako bidean. Orduan etengabe hasi da kukua entzuten alde baten eta bestean. Emazteararengana heltzean, oraindik buru makur, gertatutako guztia kontatzen dio, baina hark, alaitsu, afari goxoa prestatzen dio ez kezkatzeko esanez, horiek sineskeria hutsak direlako.

Imanol eta Paco Ibañezek ere bizitzari kantatuz egiten diote aipua kukuari "*Kukua eta primadera*" kantuan: *…biziaren esperantza erakartzen dauku, … entzunen al dut berriz, heldu den urtean, … ez dut gozorik berriz hura entzun artean*. Jolastiagoa da Kirmen Uribe ondarroarraren poematxoa, kukuak zein notatan jotzen omen zuen galdez. Diapasoia erabiliz, Si-Sol zirela zioen batek, Fa-Re besteak eta Mi-Do hirugarrenak. Azkenean ez Si-Sol, ez Fa-Re, eta ezta Mi-Do ere. Mila urte lehenago bezala kukuak ku-ku, ku-ku kantatzen zuen.

Martxo eta apiril hilabeteei loturik bada beste kontakizun polit bat:

Bazen behin artzain bat haserreak hartua, oso eguraldi txarra egiten ari baitzen martxoan, eta ehun ardi eta aharia zituen hor nonbait galduta. Hala ere, fanfarroi galant hura, ikusiz martxoa bukatzen ari zela, honela zioen: "*A, martxo, martxo emaiteat esker gaizto. Nire ardi exkaxenak ibaiai erainyok bi salto*". Martxoak bi egun eta erdi bakarrik falta zitzaizkiola ikusirik, beste bi egun eta erdi eskatu zion apirilari. Apirilak bi egun eta erdia utzi zizkion, eta egun horietan, martxoak izugarrizko ekaitza eragin zuen.

Errekak ur-jausi bihurtu ziren eta artzainaren ehun ardiak eraman zituen urak Ubegiko haitzulora. Lortu zuen artzainak aharia salbatzea, eta, bizkarrean hartuta zihoala, ahariaren adarra sartu zitzaion begian, begibakar geldituz. Aurretik harroa bazen ere, umildu zen.

Orduz geroztik, martxoaren azken bi egun eta erdi eta apirilaren lehen bi egun eta erdiei "ZOZOMIKOTEAK" deitzen zaizkie eta eguraldi txarra egiten du.

Asko dira baserri giroko atsotitzak, ez hainbeste itsas aldekoak. Hona udaberriko batzuk: "*Antxoa atsa (usaina) aberatsa*", "*Antxoa guraria da, ez gosia*" (moko zurien litxarreria), "*Antxoa txikia eta abadea elkarri bedeinkaka*" (batek bedeinkazioa eman antxoa harrapatzeko eta marinelek mordotxo bat opari abadeari), "*Antxoa urte erdiko jakia*" (bai jateko, bai diru egiteko), "*Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale oreatu barik*" (aste santuko prozesioak gogoan), "*Bokarta deitzen dautse Kateitik* (Mutrikuko mikelete etxea) *aruzkoak antxobiari*" eta "*Etorriko da maiatza, jango dugu lebatza*".

OKILA
S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

txirritxa.com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

2021 KORRIKARIK GABEKO URTEA

Bi urtean behingo hitzordua izan dugu mutrikuarrok euskararekin azken hamarkadetan. Zapatilak jantzi eta errepidera irten izan gara euskararen aldeko ekimenean parte hartzeko. Gauzak ondo, pandemia bete-betean ez bagina, martxoaren 28an izango zuen bukaera KORRIKA 22ak. Ordea, ataka larrian jarri du COVID-ak AEK ere. Korrika diru iturri garrantzitsua delako zulo ekonomiko handia sortu du erakundean, beraz, aurten herritarren ekarpenak indar handiagoa izango du.

Herritarren ekarpen ekonomikoa AEKren webgunearen bitartez egin daiteke **www.aek.eus** helbidera zuzenduz.

Datorren urterako hitzordua jarria du AEK-k. Izango dugu, bai, haren berri.



ERRENTA KANPAINA EUSKARAZ

Herritarrok urtero egin beharreko Errenta aitorpena egiteko ordua helduta, herri euskaldunetan aitorpen hori euskaraz egitearen garrantzia azpimarratu du UEMA-k, udal euskaldunen mankomunitateak.

Ogasunak emandako iazko errenta kanpainaren datuak begiratuta, ikusten da Mutrikun 2.779 aitorpen egin zirela eta horietatik 859 egin zirela euskaraz, %31.

Kontuan hartuta Mutrikun euskararen ezagutza indizea %85ekoa dela, euskaraz egindako aitorpenen ehunekoa txikia dela ikusten da. Horren arrazoiak asko izan daitezke, baina askotan utzikeria izaten da, hirugarren batean lagata hizkuntza hautuaren erabakia.

Horren aurrean, UEMA-k gogoratzen du herritarrak erabakitzen duela ogasunarekin zein hizkuntzatan harremana izan, eta, hori dela eta, errenta aitorpena egiteko momentuan, ogasuneko bulegoetan modu presentzialean izan, gestorian izan, telematikoki izan, edota telefono bidez izan, aitorpena euskaraz egitea gure esku dagoela.

Eguneroko bizimoduan egiten ditugun gauzetan hizkuntza aukera egitean etorkizunerako aukerak emango dizkiogu gure hizkuntzari. Errenta aitorpena egiterakoan ere bai.





ZELAIETA JATETXEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
asteburuan zabalik
astegunetan erreserbak

MAIATZAK 1, COVID GARAIAN

Aldizkari hau inprentara bidali denerako sindikatuek oraindik ere maiatzaren 1erako deialdirik egin gabe bazeukaten ere, aurtengoan ere izango da zer aldarrikatu gure herrietako kaleetan, langileen nazioarteko egunaren inguruan.

Covid-19ak eragindako osasun-neurriek eta garaiko mugaketek herrietatik irtetea zailtzen dutenez, aurtengoan ere ez dira elkarteratze jendetsuak ikusiko Euskal Herriko kaleetan, baina langileen aldarrikapenak ozen entzungo dira: Enplegu publikoa sortu eta egonkortu, prekarietaterik ez, azpikontrataziorik ez, hitzarmen duinak, eskubide sozialen karta sustatu, lan-istripuak ekiditeko neurriak hartu, covidaren aurrean langile guztien duintasuna eta lan-baldintza seguruak bermatu...

Hamaika aldarrikapen urte osoko borrokarako.




COVID-19 MARTXOKO DATUAK

Martxoa egoera ezin hobean hasi genuen, otsailekoekin elkartuta, 19 egunetan Covidak kutsatutako herritarrik gabe. Kutsatze-tasa 0,00 izanda hasi genuen hila, hortaz. Tamalez, hainbat kutsatu izan dira ordutik eta aurreko 14 egunetan 10 kasu batuta amaitu genuen martxoa.

Apirilaren hasieran ere kasuak batzen doaz, eta apirilaren 9rako 300,00eko tasa gainditu dugu. Gipuzkoan eta EAEn gertatzen ari den moduan, goranzko joaeran gaude.

Aurretik izandako “olatuak” ikusita, olatu berri bat datorrela dirudi. Horren aurrean, zaindu gaitezen eta zaindu ditzagun gure ingurukoak. Esan erraz, baina esaten dena betetzen zaila gertatzen da. Zaindu dezagun elkar.



MARTXOA 21 positibo

1	2	3	4	5	6	7
0	0	0	0	0	0	0
0	0	0	0	0	0	0
0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8	9	10	11	12	13	14
0	1	4	2	1	0	0
0	1	5	7	8	8	8
0,00	18,82	94,09	131,73	150,55	150,55	150,55
15	16	17	18	19	20	21
0	1	2	1	0	0	0
8	9	11	12	12	12	12
150,55	169,36	207,00	225,82	225,82	225,82	225,82
22	23	24	25	26	27	28
2	0	0	0	2	0	0
14	13	9	7	8	8	8
263,46	244,64	169,36	131,73	150,55	150,55	150,55
29	30	31				
1	2	2				
9	10	10				
169,36	188,18	188,18				

kasuak	tasa
22>	400>
16	300-399
4	60-299
<3	<59

egunak
Covid-19 positiboak
*aurreko **14** egunetan metatuta*
100.000 biztanleko 14 eguneko inzidentzia tasa





MUTRIKU ARRAUN TALDEA DENBORALDI BERRIARI EKITEKO PREST

Iazko denboraldia ez zen izan ahazteko modukoa. Covid-a tarteko, hankaz gora jarri zuen Arraun taldearen egitarau osoa. "*Hiru estropada edo jokatu genituen eta beste guztia bertan behera gelditu zen*". Horixe esan digu Loren "Txaparrok". Aurten, berriz, itxaropenik galdu ez arren, adi-adi egon beharko dute denboraldia nola joango den ikusteko.

Iazkoa ahazteko modukoa…

Hala da, bai. Segurtasun neurri zorrotzak bete behar zirelako Mutrikun behintzat ezin izan zen ezer antolatu eta horregatik lau herritan burutu ziren estropada saioak: Pasaian, Getarian, Getxon eta Castron, arraunlariak eta ikusleak aparte egon behar zutelako.

Aurtengoa nola ikusten duzue?

Beste elkarteekin egindako bileran izan ginen, eta denok nahi dugu, bai, bakoitzak bere herrian estropadak egitea, baina ez dago ziur. Datak jarrita daude, baina dagoen egoera ikusita ez dakigu zer gerta daitekeen.

Hondarribian edo Pasaian, adibidez, badago lekua traineruak-eta gordetzeko eta handik itsasoratu daitezke; jenderik ez dabilen lekuak dituzte eta horrek, nolabait, erratu egiten du antolaketa. Tamalez herri guztiak ez daude egoera horretan, portua herri barruan dugulako; adibidez, Mutriku, Elantxobe, Lekeitxo… Portua herri barruan daukagunok ez dakit nola ibiliko garen estropadak antolatzeko. Esanda bezala datak jarrita daude: Maiatzaren 15ean eta 16an Gipuzkoako txapelketa Mutrikun antolatzeko asmoa dugu. Maiatzaren 29an, berriz, Mutrikuko bandera dugu aurrikusita. ARC Ligako estropada uztailaren 3an litzateke Mutrikuko uretan. Gogo handia dugu guztiak antolatzeko, baina ez dakigu ba zer gertatuko den. Zumaian izandako bileran izugarrizko protokoloa eskatzen dutela ikusi genuen eta gure herriak ez dakit horretarako ematen duen, ikusleak alde batetik eta arraunlariak bestetik… Ikusi egin behar zer gertatuko den, gaur egindako planak agian hurrengo astean ez du-ta balio izango.

Egoera honek, bestalde, zuen aurrekontuan ere izango zuen eragina…

Demasakoa. Pentsa zenbat ekitaldi egin izan ditugun. Berdel erre egunak… kale egin digu, Malenetako atun erreak… kale, Galbaixuetakoak ere kale… Diru-iturri garrantzitsuak izateaz gain, egun horiek gure bazkide eta zaleekin egoteko egun aproposak izaten dira. Bestalde, gure materiala saltzeko ere egun indartsuak izaten dira.

Esan beharra dago, bestalde, gauden egoeran egonda ere babesleak gurekin jarraitzen dutela, eta hori garrantzitsua da guretzat. Aipatzea merezi du, baita ere, 650 bazkide ditugula eta prest gaude beste hainbeste hartzeko, urtean hamar euroren truke.

Materiala erosteko zein bazkide egiteko, Arraun taldearen lokalera joatea besterik ez dago goizetan zein arratsaldetan, beti egoten baita baten bat bertan. Datozen guztiak besoak zabalik hartuko ditugu.







Ianire Usandizaga Azkarate

Lan-aukera batek eramanda, irakasle Oklahoman

Ianire Usandizaga Azkarate mutrikuarra lan-munduak bideratuta iritsi zen Ameriketako Estatu Batuetara. 2017. urtean ailegatu zen Tulsara, Oklahomako estatura, eta bertan jarraitzen du oraindik irakasle lanetan. Bertako bizitzari, gizarteari eta ohiturei buruz hitz egiteko aukera izan dugu berarekin.

Nolatan iritsi zinen Ameriketako Estatu Batuetara?

Irakaslea naiz eta banekien Espainiako gobernuak irakasleentzako truke programa bat daukala atzerrian lana egiteko. Kalifornia edo Floridara joateko eskaera egin genuen, baina azkenean Tulsara, Oklahomara, etortzeko aukera eman ziguten eta bi aldiz pentsatu gabe maleta hartu eta hegazkinean sartu ginen hona etortzeko.

Zenbat denbora daramazu bertan?

2017ko abuztuan iritsi ginen Tulsara eta hau laugarren ikasturtea da hemen lanean nabilela. Aipatutako programak hiru urterako bisa eman zigun baina bi urte gehiago luzatzeko aukera daukagu. Hasiera batean soilik urte baterako etorri ginen baina behin urte hori amaituta gustura geunden eta denbora gehiagoz gelditzea erabaki genuen.

Zer ezberdintasun edo antzekotasun ikusi duzu horko eta hemengo lana egiteko orduan?

Desberdintasun nagusia hemen lanerako bizi direla, esango nuke. Ordu (extra) asko sartzen dituzte lanean. Ikasturtea abuztu erdialdean hasten da eta abuztu hasierarako jada denak ikastetxean egoten dira ikasgelak eta umeek egingo dituzten gauzak prestatzen. Hori gurean ez da ikusten, gu lanera bizi ahal izateko joaten garela esango nuke, eta hemen lanerako bizi direla. Lanaren inguruan biratzen du guztiak.

Nola moldatu zara bertako bizimodura? Zer moduz hizkuntzarekin?

Hasieran gogorra izan zen. Leku berri batean nengoen, jende berria, hizkuntza berria, etxea topatu beharra, autoa… hasiera ez da erraza. Gainera, hortik bizitzeko modu eta ohitura batekin etorri nintzen eta hemen ere horko gauza berdinak bilatzen saiatzen nintzen. Gero konturatu nintzen beste herrialde baten nengoela, hemen bizitza ezberdina dela, eta poliki-poliki egokitzen joan nintzen, hemengo alde on eta txarrekin bizitzen ikasi nuen.

Ingelesari dagokionez, nik uste nuen ingelesez banekiela hona iritsi nintzen arte. Hemen konturatu nintzen ez zela hola, ez nuen ezer ulertzen. Belarria egin behar izan nuen, liburuetan azaltzen ez den hiztegia ikasten, eguneroko bizitzan erabiltzen dena.

Pandemiari dagokionez, zein da horko egoera?

Hemen, mundu osoan bezala, egoera ez da ona. Covid-19 kasu pila bat egon dira, ospitaleak beteta… baina, hala ere, ez gaituzte behin ere konfinatu. Pandemiaren hasieratik beti izan dugu kalera irteteko edota herrialdean zehar mugitzeko aukera. Lege asko estatuaren araberakoak dira, maskararen erabilera ez da derrigorrezkoa toki askotan, nik uste horrek eragina izan zuela egoera eskasten. Argi dagoena da hemen lehentasuna ekonomiak duela, eta gero dator beste guztia.

Noiz aurreikusten duzu Mutrikura itzultzea?


2022ko ekainean amaituko zaigu programa eta, horrekin batera, baita bisa ere. Baina, beno, ikusiko dugu zer egiten dugun. Ez zaigu gustatzen epe luzerako planak egitea eta momentua iristen denean, egoeraren arabera, erabakiko dugu zer egin.

Zeren falta somatzen duzu gehien?

Gehien, gehien, familia eta lagunen falta somatzen dut. Baina baita klima, janaria, hizkuntza… eta horko erraztasun guztiak, bertan zaudenean dituzula konturatzen ez zaren erraztasunak, batez ere osasunarekin lotutakoak. Hemen zerbait gertatuz gero aseguru pribatua beharrezkoa da denerako, eta horrek gauzak zailtzen ditu. Ospitaletan ez zaituzte hartzen aseguruaren informazio guztia ematen ez baduzu. Lehenengo dirua eta, ondoren, beste guztia.

Itzultzen zarenean egingo duzun lehenengo gauza…

Iritsi eta familia zein lagunekin bazkari eder bat egiteko gogoa daukat. Txibiak tintan, onddoak, kroketak… konpainia onean jateko gogoz nago!





Maria Begoña Irusta Elu

Lanaren ildotik zaildutako bizitza

Aztarrikako neskak jolasa lana bihurtzen ikasi zuen umetatik. Eskola denborako maistra zital hartaz gogoratzean haserre bizian jartzen da. Hamaika urterekin heldu zion baserriko lanei eta, lasterrera, larunbat igandetan kafetegiko zerbitzari. Ezkondu zen arte ez zuen inoiz zapaldu Mutrikuko herri kaskoa, eta hemen darama berrogeita hamaika urte gure Galdonako andereak.

Noiz eta non ekarri zintuzten mundu honetara?

1945eko apirilaren 8an jaio nintzen Berriatuako Aztarrika auzoko Burgaña baserrian. Ondarroatik Lekeitiorako kostaldeko errepidetik kilometro erdi ingurura, itsas gainean, bost kilometro Ondarroara eta bederatzi Lekeitiora.

Nola bizi izan zenuen haurtzaroa, jolasik egiten al zenuten?

Txiroak ginen gu. Hamar haurdunaldi izan zituen amak, eta, gerra inguruko giro hartan, zazpigarren hilabetean zegoela bi galdu zituen, eta, beste bik ez zuten izan aukerarik biziari jarraitzeko, hiru hilabete zituztela zendu baitziren. Beste seietatik neu nintzen txikiena, ni jaiotzerakoan ahizpa zaharrenak hogei urte zituen, eta nire aurreko mutilak bederatzi. Denok atera ginen aurrera baserriko lanez gain kanpoko edozerri helduz.

Hiru urte nituen etxeko zaharrenak kanpora ezkonduak zirenean, eta kanpoan lana egiten zuten, bi neba eta neu baino ez ginen geratu baserrian gurasoekin. Nire jolasa, beraz, amari laguntzea zen etxe giroan. Auzoko eskolan jolasten genuen zerbait errekreo denboretan eskura geneukan gauzekin: intxaurrak eta pixpolinak (haritzaren fruitua) kaniken edo zibaren ordez, txirrin-txirrinka (selemietan), soka saltoan… Udaldian auzoko norbait arduratzen zen adin inguruko haurrak haitzetara edo hondartzara eramaten. Igerian ikasi nuen behintzat, baina gaur, aizkorak bezala, hondora egingo nukeela uste dut.

Nolako giroa bizi izan zenuten eskolan?

Ez dut batere gogorapen onik. Gaztelaniaz tutik ere jakin gabe behartzen gintuzten hizkuntza berri hartan hitz egitera, hasieran besteek esaten zutena errepikatuz, zer esaten genuen jakin gabe. Baina entzuna dut: “La letra con sangre entra”, eta horrelako zerbait gertatu zitzaigun guri. Eskolara sartzean “Cara al sol” falangisten himnoa kantatzera behartzen gintuen gure maistra Emilia Egañak; ondarroarra izan eta auzoan bertan bizi bazen ere, sufriarazi besterik ez zigun egiten: zitala benetan. Ikasgelan ez ezik, errekreoan ere behartzen gintuen “castellanoz” egitera, eta, norbait euskaraz sumatzen bazuen, harlauzan belaunikaturik kastigatuta, Kristok bezala eskuak gurutzatu, eta, oraindik gehiago izorratzeko, eskuetan liburu mardulak jarrita.

Ezkutuan egindakoaz ere jabetzen zenez, adi ibili ginen nor zen zelatari txibatoa: mutil gizajo hura bakarrik harrapatu genuenean, galtzak kendu genizkion denon aurrean lotsa pasaraziz. Zortzi-bederatziren bat urte izango nituen.

Dena den, laster bukatu nituen nire eskolako abenturak. Hamaika urte nituela, ohiko zuen erregela batekin kazkarrean jotzean ileko urkila edo gantxoa harrapatu zuen eta egindako zauritik odoletan utzi ninduen: ez nintzen gehiago agertu eskolara.

Laster heldu behar izan zenion, beraz, lanari?

Arestian aipatu dut bi nebekin eta gurasoekin soilik nintzela baserrian. Hamar behi esnetarako, baratza eta fruta-arbolek nahikoa lan ematen ziguten, gure amak egunero Ondarroako azokara salmenta-jira egin zezan, eta etxerako beharrezkoak zirenak erosi. Baserritik errepideraino geure kabuz eramaten genituen salmenta-gaiak; Lekeitiotik Debara egiten zuen autobusa hartu eta Ondarroara; era berean bueltakoa. Amari askotan laguntzen nion, are eta gehiago urteak aurrera zihoazen heinean. Inoiz, elurra tarteko, autobusik ez, baina esnea, bai ala bai, eraman beharra zegoen bezeroei eskaintzeko ala galdutzat eman, ez baitzegoen orduan gaurko frigorifikorik; hartu nuen bizikleta, ipini kantina bat manibelaren alde baten eta beste bat bestean, eta han abiatu nintzen elur gainean Ondarroaraino. Nire hamabost-hamasei urte haietan ez nuen beldurrik ez ezeri eta ez inori. Hemen ditut oraindik hankan motozerrarekin egindako orbainak, apeak egiten ari nintzela erremintak laprast eginda.

Baina lana ez baserrikoa bakarrik. Hamabi urte nituen, ordurako neska sendoa, Ondarroako Akuarium kafetegian lanean hasi nintzenean mostradore atzean eta mahaiak zerbitzen larunbat eta igandetan. Hala igaro nituen hamar urte, igande arratsean berriro baserriko lanei heltzera etxeratuz.

Dena ez zen ba lana izango… Ez al ziren erromeria edo jairik zuretzat?

Ez gehiegi, lanik ez zegoenean aukera guztiak aprobetxatzen genituen, denetako ematen baitu edadeak. Sartaldeko joera genuen: Berriatua, Ondarroa, Markina eta, batik bat, Lekeitio ziren gure jomugak. Beti ere, begiak zorrotz bueltako bidearekin pentsatuz: motordun mutilei arrimatzen gintzaizkien, hori bai, pekaturik ez egiteko moduan.

Baina Jose Luis ez zenuen larre haietan aurkitu. Honantz ere egin beharko zenuen inoiz, ez?

Agian, elizan ezagutu nuela esatean barre egingo du norbaitek, baina hala izan zen. Pekatu mortalean bizitzerik nahi ezean, domeketan mezatara joan beharra zegoen. Goizeko zortzietan joaten nintzen kafetegiko etxean lo egin ondoren, eta Jose Luis eta Txomin anaia ere meza berera etortzen ziren Galdonatik. Lehenengo hitz batzuk, ondoren solasa, eta, egun baten…, hara non datozen biak atzetik kafetegira zerbait hartzera. Poliki-poliki aurrerako bideak, “Renault 4L” baten jabe izanda gainera…. Hogeita bi urte pasatxo izango nituen orduan, eta hogeita laurekin ezkondu ginen.

Hara kuxidadea, Mutriku herri kaskoan ezkondu baino hilabete lehenago izan nintzen lehen aldiz, Jose Luisekin batera

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak…)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 688788693 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

ALEX ELEKTRIZITATEA
Alexander Elezgarai Agirrebengoa
· instalakuntza elektrikoak · domotika · telekomunikazioak
· mantenu eta muntaia elektrikoak · argiztapen diseinuak
638 713 685 • alexmutriku69@gmail.com · Mutriku

ezkontza-gonbiteak eramatera soldaduzkako lagun izan zuen Kepa Floresi, eta, ordutik, hemen nago tinko Galdonako zelai hauetan.

Nola aurkitu zenuen Galdona baserria? Asko aldatu al da?

Uda aldera, igande arratsaldetan Akuariumgo lanean kunplitu eta Jose Luisi laguntzera etortzen nintzen Galdonara, kanpina irekita zutenez, taberna txikian laguntzera. Baserriaren oinarria esnetarako behiak ziren, hogeitaka behi zuten eta haren inguruan mugitzen ziren, ohikoak ziren baratza eta abarrez gain.

Ezkontzerakoan martxa berean jarraitu genuen, jabetu arte, urte guztian zehar, eguraldi ona egiten zuenean, jendea gero eta gehiago etortzen zela Eibar eta Ondarroatik. Geneukan taberna txikitxoa zela ikusita, uretara salto egitea erabaki genuen ezkondu eta hiru urtera. Zorretan sartuz gaurko eraikuntza egiten hasi ginen. Bi urte inguru iraun zuen obrak eta bukatzean kanpin lurrak atontzen joan ginen urterik urte. Jakina, behiak kendu genituen eta jantoki handia, taberna eta kanpina izan dira ordutik baserriaren ardatz. Karabanak ere ugaritzen joan dira, eta urte guztian ditugu orain bezero finkoak.

Inguratzen den jendearekin zein harreman mota duzue?

Garbi dago bezeroak zaindu beharra dagoela zerbait aurrera atera nahi baduzu, eta gu beti ahalegindu gara hurbiltasuna eskaintzen, etxeko bezala tratatzen jendea, eta uste dut lortzen dugula. Anekdota bezala kontatuko dizuet nola, uda baten, goiko baserritik kortako hondakinak jaurti ziguten garbiketarako erabiltzen genuen errekastora; ur zikina irteten hasi zen komun eta abarretatik, eta, jendearen erantzuna, ihes egitearen ordez, hodiak garbitzen laguntzea izan zen, elkarrekin dena egoki utzi genuen arte. Nahiz eta bezero askok hartu zuten parte, ezin ahaztu Arrasateko San Viator ikastetxeko gazteak, kristoren laguntza eman ziguten garbiketa lanetan. Egun ere, bezero oso onak ditugu, eta gustura egon daitezen ahalegintzen gara, batik bat, espazioak zainduz, euren eremuetan itota ez sentiarazteko. Nahiko leku dugunez, aukerak ematen dizkiegu.

Sendabelar munduak asko erakartzen omen zaitu. Nondik zaletasun hori? Eta zeintzuk erabiltzen dituzu?

Amarengandik jaso nuen bere jakinduria eta zaletasuna. Gero saiatu naiz liburuetatik gehiago ikasten, eta ikastaro ireki bat ere egin izan dugu hementxe, jantokian, sendabelarrak hobeto ezagutzeko.


Hara erabili izan ditudan batzuk:

- "*Kipula gorriaren bihotza*" Oliotan beratuta zuldarrak eta erlakiztenak sendatzeko. Azken hauen erroak ondo kendu behar dira, bestela alboetan berriak sortzen baitira.
- "*Karraskila*" Adaskak egosi eta tea bezalako egoskina gelditzen da. Zainetako tentsioa jaisteko egokia.
- "*Berbena belarra*" Diabetesa kontrolatzeko, baina kontu handiarekin. Enplastua eginez, sinusitisen aurka, grano txarrentzako eta bronkioak samurtzeko.
- "*Miura*" Txiza egiten laguntzeko. Ganaduekin ere erabiltzen da.
- "*Intxusa* edo *Sauko*", "*Pasmo belarra*", "*Aloe bera*" eta "*Berbena*" nahastu oiloen gantza, txerri manteka eta oliba olioarekin, beratzen eduki eta egosi. Ondoren, beroa dagoela, iragazi kafetxanoa erabiliz, eta potoetan hustu. Hozten denean, pasta bat gelditzen da. Egokia psoriasiaren aurka, ultzerak sendatzeko, ohean denbora asko daudenei ultzerazioak ekiditeko, erretasunak arintzeko…
- "*Azeri buztana*" Txiza egiteko.
- "*Horma-belar* edo *parietaria*" Gibela garbitzeko.













Haginkadak, zaztadak eta erredurak

Animalixa eta landara batzuek defentsarako mekanismo ezagunak daukaez: hortzak, espiñak, arantzak, erresumiña sortzen deuen zelulak... Horretako batzuk ekarri ditxugu hona, eta baitxa arrantzale eta baserritxarrek emandako azalpen argigarrixak ere.

Gero eta normalagua da entzutia asunek "pikatu" egin dixuela olgatzen zabillen umiari; orain, kulumiñuak ere "pikatu" egiten deu, baitxa marmokiak ere. Erderiaren eragiñez zabalduko "pikatu" horren ordez, sasoi baten beste hitz batzuk erabiltzen ziran: erre, zaztadia egin, miztorra sartu... Itsasotik hasi eta ondoren lihorrera eginda, juan gaitxezen banan-banan izenak eta izanak aletzen.

Kontuz ibiltzeko arraiñak

Min haundixa eman ahal digue arrain batzuek. Arraiñek, buztanetik hasi eta bururaiño, hainbat hazur daukaez bizkarrian; ezkardia esaten zako hazur-illera horri. Baiña, arrain klase batzuek buru aldian hazur haundixago bat eukitzen deue: "*espiñia*". Gaiñera, arrain batzuek pozoia daukae espiña hortan. Ezagunenak: salberia eta itsas kabria.

Salberaren zaztadia oso mintsua da. Ondo dakixe hori arrantzaliek. Espiñia sartu ezkero, ahuarekin ahalik eta odolik gehixen txupatu bihar izaten zan pozoia ateratzeko. Hori egindakuan, "soluzio" ezberdiñak zozen. 1892. urtera eramaten gaitxu erremedixorik zaharrenak: "l*os marineros de Motrico han popularizado también el uso de ciertas piedras negruzcas en las mordeduras de peces venenosos (entendiendo por tales hasta a los crustáceos que conducen una herida irregular, irritada por el cloruro sódico del agua marina)*". Ez dakigu zelako harrixak ziran horrek, izan ere herriko arrantzalerik zaharrenek ere ez daukae goguan.

Sasoi baten ezin zeiken faltatu barkuan "akerraren adarra". Halako arrain batek espiñia sartu ezkero, kutxillo batekin adar zati bat hartu eta haren hautsa jartzen zan min hartutako tokixan. Gerora botikiña eramaten hasi ziran barkuak, baiña ordura arte herri-erremedixuak erabiltzen ziran miña arintziarren, whiskyxa edatia, esaterako. Oraintsuago, barkuko baterixia ireki eta bertako azidua ere erabilli izan zan, baiña esaten deuenez ez zan ona "*mamiña bera ere erre egitxen zoalako*".

Arrantzale bat baiño gehixo ezagutzen det Mutrikun bizitza guztirako salberiak lagatako "gerrako markak" dakazena eskuetan.

Esan bezela, itsas kabriarekin ere min haundixa hartu leike. 1928ko otsaillaren 5ian "Argi-zale" (ez)izeneko berriemaille mutrikuarrak hau idatzi zoan "Argia" astekarixan: "*Olabarrotan zebillela itxaskabriaren exurra sartuta makal xamar dago Tomas kartzelako gizon ezaguna. Azkar sendatu*".

Mutrikun, Udaletxeko idazkari lanetan ibillitxako Ramon Beristain zanari "Itxaskabria" esaten zixuen. Zeozergaitxik eukiko zoan "titulu" hori.

Pastangia izeneko arraiñak kalanbria ematen deu, deskarga elektrikua; horixe deu arrantza egitxeko sistemia, hori dala-eta arrantzaliek badakixe ez dala heguetatik heldu bihar. Buztanetik heldu ezian, "danba!" jasoko degu deskargia.

Bada beste arrain bat, *ikaixua*, buztanian zerria bezelako espiña haundixa daukana. Sartu ezkero, mamiña harrotzen deu. *Traman* batzuek ere espiñak daukez buztan aldian; esku-artian kontuz ibiltzeko arraiñak, edozela ere.

Beste arrain batzuek, berriz, haginkada ederrak ematen ditxue. Talde horretakuak dira aingiria, moria, momarra, momatxa eta zabaleria. Jakin degunez *moria* (Muraena helena) zan bereziki arriskutsua, haginkadarekin batian pozoia sartzen zoalako. Hori dala eta, Mutrikun harrapatzen ziran grano bakarrak kordatik zintzilik ekartzen zitxuen portura. Mutrikuarrek ez zeuen jaten arrain hori, baiña herriko italiarrek –Don Jose Billantek, esaterako– estimu haundixa zixuen.

Erne, erre gabe!!

Marmokak udan etortzen dira, ura epeltzen danian. Klase asko dago, baiña danetan arriskutsuena *belerua* da. Izen bat baiño gehixo hartzen deu eskuaren tamaiñako marmoka horrek: galera, galeoia, belero portugesa... Ur azalian ibiltzen da eta bela modukua dauka, hortik izena. Hari luziak daukaz beherutz, hori dala-eta arrantzale batzuek pitxia dalakuan, heldu eta eskua erre izan deue.

Marmoka buruhaundixak ere badoz. Esparbelarekin edo eskuarekin kendu izan ditxue paretik maiñelek. Gero, eskuak garbitxu eta kitto, arriskutsuena zan marmokia ikututako eskua begixetara eruatia.

Bado beste marmoka bat, txiki-txikixa, sasoi baten antxobiekin batian harrapatzen zana nahi gabe. Halakuetan garbitxu egin bihar izaten zitxuen sariak, bestela bixaramunian sare harek ez zoan ondo arrantzatuko. Gaiñera, kanika baten tamaiñako marmoka harek arraiña makaldu egitxen zeuen, alperrik galdu eta preziua ere halaixe.

Baiña marmokak ez dira erretzen deuen bakarrak, eta itsasoko anemonarekin ere kontuz ibilli bihar da. Mutrikun, fideodun zopa berua zalakuan, izen ederra asmatu zixuen gure aurrekuek: *zopaberua*. Haitzetako potzuetako zopaberuekin erre ezkero, marmokaren kasuan bezela, antzeko erremedixuak erabilli leikez: itsasoko urarekin garbitxu (sekula ez ur gezakin), mindutako azala igurtzi gabe, eta zapi bustixak jarri... Dana dala, ez dakitx zopaberuak eragindako hazkuria arintzeko marmokaren erredurarako erabiltzen zan erremedixo batek balixo ete doan: txixa egitxia erretako lekuan.

Itsas lakatzak

Mutrikun ez dira jaten haitzetako bola arantzadun horrek, baiña Asturiasen-eta oso estimatuak dira. Umetan, zeiñek ez deu zapaldu noizbaitx itsas lakatzen bat? Zaztada ederra igarriko zoan. Gero, jakiña, arantza horrek poliki-poliki atera egin bihar. Gerra aurrian, Mautzi (Matsuridi) baserriko mutilla hil ei zan itsas lakatzak sortutako infekziuagaitxik. Itxura danez lapatara juan eta itsas lakatzaren arantzak sartu zitxuan.

Itsasotik lehorrera eginda, beste haginkada, ziztada eta erredura batzuk aitxatuko ditxugu.

Lihorreko haginkadak

Txakurrak haginka egin leike, edo krausk, kalian esaten dan bezela. Holakuetan, ondo garbitxu bihar izaten zan zaurixa edo heridia, ez gaiztotzeko. Gero, batzuek berbena-tortillia jartzen zeuen egon zeiken zikiñak ertetzeko. Etxe batzuetan "solimaua" izeneko pomadia eukitzen zeuen esku-eskura haginkadak eta zaurixak osatzeko. Aurrerago etorriko ziran ur oxigenatua eta Pental izeneko botikia.

Txakurrak haginka egin ezkero, arriskutsuena amorrua harrapatzia zan. Horren kontra Gabon gabeko afarixan bedeinkatutako ogi koskorra ematen zakuen urtero etxeko txakurrei. Hola ez ziran amorratzen.

Mutrikuko 1897ko udal ordenantzetan jasotzen zanez amorruak jotako txakurrak akabatu egin bihar izaten ziran. Horrezaz gaiñera, amorrautako txakur batek haginka egindako animalixak ere berdin, "*deberá ser muerto y entrerado en un hoyo profundo*".

Mustela edo satanderia benenosua dala uste deu jentiak, nahiz eta hori gezurra izan; hori dala-eta bildurrez hartu izan da beti animalixa hori, eta norbera eta etxeko ganauak bere haginkadatik libratziarren tiroz hil ditxue askok eta askok. Sasoi baten abarka zaharrak eta gomak erretzen ziran baserrixetan mustelia (eta bestelako "priztixak") uxateko. Gaiñera, Udalak sasoi baten baserriko jeneruak ostutzen zitxuan animalixa "pozoitsu" haura harrapatzia bultzatzen zoan, eta harrapatzailliari "eskupekua" ematen zixuen.

Arratoiak ere bere burua babesteko haginka egitxen deu. Beliotegiko seme batek ostikua eman zion behin arratoi bati, bai eta arratoiak haginka egin ere; hagikada haura gaiztotu egin zakon eta medikuarenera juan bihar izan zoan. Ikusi ezkero, onena pakian lagatzia.

Mutrikun sube klase bat baiño gehixo egon arren, oso gitxitxan entzun da pertsonei haginka egitxia. Arriskutsuenak sube-gorrixak dira. Holako sube (edo suge) batek haginka egin edo heldu ezkero onena medikuarenegana juatia. Baiña, holakuetan ere, gure tio Antonio zanak esaten zakixanez, "*pakian dauana pakian lagatzia onena*".

Ardi bati subiak haginka egitxen bazion koskor haundixa ertetzen zion. Koskor haura kentzeko elorri zurixaren arantza bat hartu bihar izaten zan eta *zazta-zazta* zaztiatu egin bihar izaten zan, gero ura darixola egoten zan eta aburo sikatzen zakon. Elorri edo arantza beltzak ez zoan balixo hortarako, izan ere, baserritxarren esanetan, "*beltzak berak zoan zornia*".

Zizt eta zazt

Kulumiñuek eta erliek zaztadia ematen deue. Kulumiñuarena migarrixagua izaten da. Ozpiña erabiltzen zan, ahal dala atera zauan.


Hona ekartzeko moduko erremedixo bat ere bazauan Mutrikun: hiru bedar klase ezberdin batu eta hirurekin batera zaztadia izandako tokixan igurtzi.

Tarteka, animalixei ere sartzen zixuen miztorra. Laranga aldian entzun degunez, behin baten Artia (Arteaga) baserriko ardixak, egarrixak itxuria, Ametzako itxurri ingurura hurreratu ziran ura edatera. Itxurri aldameneko haritz arbola zahar baten bizi ziran kulumiñuak inguratu eta kulumiño batek mingaiña kanpuan zakan ardi bati miztorra sartu zion mingaiñian eta, jakiña, mingaiña haundi-haundi geratu zakon; ahuan kabitxu ezinda itxo ei zan ardi koitxaua.

Gauza jakiña da erlia galdu egitxen dala zaztadia egindakuan, kulumiñua, berriz, ez. Holako intsektu gehixo ere badoz: ezpatia, mandaeulixa, moskitxua...

Zopaberuen faltan, asunak

Ikutu ezkero, asunak erre egitxen deu. Harrotu egitxen deu azala. Orduan, urakin garbitxu eta kitxo. Zenbat eta hazka gehixo egin, txarrago. Kalmatzeko, pomada bat izaten zeuen baserrixetan, argizari, olixo eta intsusarekin egindakua.







Josu Larrañaga Arrieta

Mutrikuko Gaztetxea

20. URTEURRENA

Gazte batzuk izan zuten
Gogoa eta kemena
"herri bat, gaztetxe bat" zen
haien aldarrikapena
laster gaindituko zuten
leku ezaren itomena
gaztetxea bilakatuz
lehenago matadei zena
handia izan da ordutik
banakoen ekarpena
borrokatuz egunero
gazteok dugun kondena
sustraiak errotu dira
urteak irakaspena
gaztetxea aurrera doa
hemen da hogeigarrena

Eztabaida ororen plaza
Hamaika ideien gunea
Autogestioaren bidez
Antolatzen den etxea
berdintasun harremanak
sortzeko abagunea
normaltasunetik ihes
egiteko irtengunea
gazte belaunaldi asko
batzen dituen katea
lotura hori izanik
kontzientzia transmisorea
toki eraikitzailea
eta erabat askea
guk eraikitzen baitugu
behar dugun gaztetxea

Asanbladaz asanblada
garatuz gure jarduna
zapalkuntzaren aurrean
sustatuz elkartasuna
nahiz errealitatea
den makurra ta iluna
guk soilik daukagu hori
aldatzeko gaitasuna
antolakuntzaren bidez
garaituz ezintasuna
borroka dezagun gogoz
gaurko pasibotasuna
mugitu zaitez laguna
gurea da etorkizuna
ez baita ezinezkoa
nahi dugun askatasuna



optika
eskaintza berezia
progresiboetan
ALAZNE OPTIKA
Jose Mª Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es
www.apallu.es



XARKEIren marmarketa

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA


euskara jatorrean hobe

a ***Patadia*** eman zion ipurdixan.	**a** ..... eman zion ipurdixan.
b Amonan ***zorionak*** datoz.	**b** Amonan ..... datoz.
d Goizian ***ikusi dizut*** kalian.	**d** Goizian ..... kalian.
e Mendira juteko ***goguak*** dakat.	**e** Mendira juteko ..... dakat.

Erantzunak: **a** Ostikadia **b** Urtebetetzia **d** Ikusi zaitxut **e** Gogua

gurutzegrama

1 Norbaiten zain, esperoan, kezkatan.
2 Erlearen antzeko intsektua.
3 Herdoildu. Gauzak, eta fruita ere hala egiten da.
4 Aurre, norbaiti aurre egin.
5 Zerbaitegatik kontuak eskatu.
6 Pertsona urduria, ezinegona. Edota gauza baliogabea, purtzila..
7 Nahia.



Erantzunak: **1** Peskitzan **2** Kulumiña **3** Ugertu **4** Petx **5** Errieta **6** Zizturiñ **7** Mendemiña

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

apirila 2020















ALKOLEA
ARDOTEGIA
Jon Andoni Basurko Pagoaga

Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku

Edariak
eta gehiago...

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

apirila 2021













ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Jon naberan
DISEINU eta BERRIKUNTZAK, s.l.
Telf. 685 731 969

ZORIONAGURRAKZORION



ENARA
Zorionak!
Martxoaren 16an
6 urte.
Muxu bat Lukenek.



GORKA
Zorionak Galdonako txikiari, apirilaren 24an 7 urte betetzen dituelako! Muxu haundi bat aita, ama eta etxekoen partez!



BEGOÑA
Apirilaren 8an 76 urte bete dezu ta Zorionak etxeko nagusiari! Holaxe segi urte askuan!



IRAIA
Zorionak eta hamar muxu haundi, etxeko danon partez!



EKAITZ, GURENDA, ENARA eta NAHIA
Zorionak laukote!
apirilaren 4an, 16an eta 21ean urteak bete dituzuelako.
Familia guztiaren partez matxo haundi bana!



LAGUNA
Zorionak lagun lagun zarelako!

ZORIONTZEKO ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

kalaputxi2001@gmail.com # whatsapp 635748393

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199226 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

Argazki Zaharrak



Atotxa futbol zelaian, 1950eko hamarkada bukaera aldera
Patxiko Illarramendi, Manuel Azpiazu "Zabale", Patxi Arakistain "Barrillerua", Gregorio Iparragirre "Pikua txiki", Ramon Mendizabal "Txokolo", Ziriako Andonegi eta Eugenio Egurbide.



Lagun koadrilla, 1970 bueltan
Jabier Flores, Jose Mari Osinalde, lekeitiarra, Jose Mari Landa "Kalamax", Maria Eugenia De Miguel, …, Bingen Agirregomezkorta "Bixente", Xabier Egurbide, Jose Agustin Mendiguren, lekeitiarra, Sabin Flores, Nikasio Arruabarrena, Pedro Mari Urkiri eta Arantxa Aristondo





FARMAZIA GUARDIAK 2021

2021	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	2021
Maiatza	4	4	2	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	Maiatza
Ekaina	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	Ekaina

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00				
1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26
GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00				
	Arantzazu Izpizua	Eibar	Ibarkurutze kalea 7	943 20 19 12

AGENDA

LIBURUAREN ASTEA

API 21 17:00 **Ipuin kontalaria**

API 27 18:00 **Hitzaldia**: Literatur sorkuntza Karmele Jaioren eskutik Ondoren, Ziriako Andonegi lehiaketaren sari-banaketa.

API 30 Liburuaren asteko **zozketa**

API 24 18:00 Biolin eta piano **kontzertua** Zabielen Nerea eta Maddi Arriola & Esther Barandiaran

DATOZENAK



MAIATZAK 2 - 19:00*
HIL KANPAIAK



EKAINAK 6 - 19:00*
ERLAUNTZA

MENDI IRTEERAK

MAIATZAK 9
Otzaurte-Aratz-Otzaurte

EKAINAK 20
Gorostapolo-Hautza-Izpegi

UZTAILAK 2, 3, 4
Linás de Broton (Pirineoak)

IRAILAK 12
Larla-Jarla ibilaldia

URRIAK 17
Elurretxe-Bianditz-Artikutza

AZAROAK 7
San Tirso

ABENDUAK12
Debako mendi inguruak

Urte zaharretako bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
maiatzeko aldizkarian
argitaratzeko
maiatzaren 7rako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA 2021

Gipuzkoako Odol Emaileak

apirilak 30
ekainak 25
abuztuak 20
urriak 22
abenduak 03

18:00etan

anbulatorio zaharrean edo jakinaraziko den tokian

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

- Etxea apaintzeko proiektuak
  - Altzariak
    - Sukaldeak
      - Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AROZTEGIA

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA

Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com


camping GALDONA

943 60 35 09

Jatetxea eta erretegia

menuak, plater konbinatuak, karta ingurune paregabean

eguneko menua





Pol. ANTZOMENDI - Galdona bidea

MUTRIKU 943 60 31 86

gorritxuautoak@hotmail.com

- ITV
- DIAGNOSIA
- ELEKTRIZITATEA
- MEKANIKA
- GURPILAK
- MANTENIMENDUA

Aurrekontuak konpromiso gabe

Autoa nahi duzun tokian jaso eta itzuliko dizugu